

ZOKKETAREN OINARRIAK: WOODY ALLEN IBILBIDEA

LEHENENGOA

Zozketa honetan Facebook eta Instagram bidez parte hartu ahal izango da, eskakizun hauek beteta:

- @sansebastiantourism kontuaren jarraitzailea izatea
- Zozketaren argitalpenean iruzkina uztea ibilbidea egiteko aukeratuko zenituzkeen 2 lagun aipatuta eta filmetik gehien gustatu zaizun kokapena zein den zehaztuta (nahi bezainbeste iruzkin utz daiteke).

BIGARRENA

Lehen puntuan aipatutako eskakizunak bete dituzten eta parte hartu duten erabiltzaile guztien artean egingo da zozketa Easypromos eta Sortea2 plataformen bidez. Irabazlea 72 orduko epean Donostia Turismoarekin harremanetan jarriko ez balitz, beste zozketa bat egingo da.

HIRUGARRENA

Parte hartzeko epea 2021eko maiatzaren 6an hasi eta 2021eko maiatzaren 27ko 23:59an amaituko da. Zozketaren irabazlea zein den maiatzaren 31n jakinaraziko da www.sansebastianturismoa.eus webgunean eta Instagram Stories-en.

LAUGARRENA

Saria:

- Bi gau asteburu batean gosariarekin bi lagunentzat Donostiako Hotel Maria Cristina hotelean.

Baldintzak:

- Hotelean erreserba gutxienez 30 egun lehenago egitea eskatzen da. **Erreserba** **h**Hotelean logelak erabilgarri egotearen mende geratuko da **erreserba**.
- Esperientziaren erreserba egiteko, +34 943 43 76 41 telefono-zenbakira deitu edo e-maila bidali beharko da reservas.hmc@luxurycollection.com helbidera.
- Esperientziak sariduna zein den jakinarazten den unetik urtebeteko indarraldia izango du.

BOSGARRENA

Donostia Turismoak erreserbatuta izango du bere ustez beste parte-hartzaile batzuen aurka iraingarriak edo iruzurrezkoak diren jardueraren bat egiten ari diren pertsonen parte-hartzea kanpoan uzteko eskubidea.

SEIGARRENA

Donostia Turismoak oinarri hauetan jaso gabe dauden egoerak zein interpretazioarekin lotuta sor daitezkeen zalantza guztiak argitu ahal izango ditu.

ZAZPIGARRENA

Zozketa Donostia Turismoak antolatu du eta bertan ez dute parte hartzen eta ez dute zozketaren gaineko erantzukizunik INSTAGRAM. INC.k eta FACEBOOKek.

ZORTZIGARRENA

Oinarri hauek onartzeak berekin dakar parte-hartzaileek beren datuak baldintza hauen arabera tratatzea baimentzen dutela:

DATUAK BABESTEARI BURUZKO OINARRIZKO INFORMAZIOA	
Tratamenduaren arduraduna	Donostiako Udala
Tratamenduaren xedea	Donostiako lurralde eremuan turismoaren garapena zuzenean edo zeharka bultzatzen laguntzen duten lehiaketekin, zozketekin eta jarduera ekonomikoak eta sozialak sustatzearekin, garatzearekin eta bultzatzearekin lotuta Donostiako Udalak antolatutako gainerako jarduerekin lotuta interesdunaren parte-hartzea kudeatzea.
Tratamenduaren legitimazioa	Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorren 6.1.a) artikulua: interesdunaren baimena
Lagapen edo transferentzien hartzaileak	Ez dago halakorik aurrez ikusita.
Interesdunen eskubideak	Datuetara sartzea, horiek zuzentzea eta ezabatzea, eta gainerako eskubideak erabiltzea. Eskubide horiek erabili ahal izateko, Donostiako Udalera jo beharko dute - Ijentea kalea, 1 - 20003, Donostia.

Zure datu pertsonalen tratamenduari buruzko informazio zehatza kontsulta dezakezu webgune honetan: <https://www.sansebastianturismoa.eus/eu/pribatutasun-oharrak-lehiaketak>

BEDERATZIGARRENA

Zozketa honetan parte hartzeak oinarri hauek oso-osorik onartzea dakar berekin.